

2854/2019 Alkatetza Dekretua, uztailaren 16koa, Udaltzaingoko ofizial-lanpostu bat (derrigorrezko 3. HEduna) administrazio arteko lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onesten duena.

Basauriko Udaltzaingoko ofizial lanpostua (DERRIGORREZKO 3. HE-DUNA) administrazio arteko mugikortasun-sistema eta lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta horren oinarri arautzaileak onetsi zituen maiatzaren 17ko 2061/2019 Alkatetza Dekretuak. 2019ko maiatzaren 31n, Basauriko Udalak deialdiari buruz emandako ebazpena argitaratu zen BAOn, EHAAn eta Udalaren webgunean; eta ekainaren 3an, berriz, prentsan.

Gero, ekainaren 28ko 2666/2019 Alkatetza Dekretuak Basauriko Udaltzaingoko ofizial lanpostu bat (derrigorrezko 3. HEduna) administrazio arteko lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko prozedurari dagozkion onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onetsi, prozesurako epaimahaia izendatu, eta hura eratzeko data ezarri zituen. Hori guztia 2019ko uztailaren 5eko BAOn (128 zenbakiduna) eta udal webgunean argitaratu zen. Bada, 2019ko uztailaren 15ean erreklamazioak aurkezteko epea amaitu zen. Jon Eleceta Lavínek dokumentazioa zuzentzeko eskabidea aurkeztu zuen, eta Giza Baliabideetako atalburuak horri buruzko txostena egin zuen 2019ko uztailaren 16an. Horren harira, eta deialdiaren bosgarren oinarrian xedatutakoari jarraituta, Alkatetzak zera XEDATZEN DU:

LEHENENGOA: UDALTZAINGOKO OFIZIAL lanpostu bat (DERRIGORREZKO 3. HE-DUNA) betetzeko **deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea.**

ONARTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

NANa	1. ABIZENA	2. ABIZENA	IZENA
38659****	IBERNIA	BELAMENDIA	ZIGOR
7887****	ERKOREKA	ARRUZA	ASIER
2903****	ELECETA	LAVIN	JON

Prozeduraren edozein unetan Epaimahai Kalifikatzaileak jakingo balu izangai batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, hura deialditik kanpo utziko du, entzunaldia eman eta gero.

BIGARRENA: Ebazpen hau Udalaren webgunean, iragarki-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

HIRUGARRENA: Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio-organo eskumenean, ebazpena argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean (hala xedatzen dute Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. eta 46.1 artikuluek). Bestela, aukeran, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ahalko da, ebazpena eman duen organoan, hura argitaratzen den dataren biharamunetik hilabeteko epean (hala xedatzen dute Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1., 123. eta 124. artikuluek).

Basauri, 2019ko uztailaren 16a. ALKATEA, Asier Irigorri Basaguren.